



HAURDUNALDI SUBROGATUAREN INGURUKO DOKUMENTU MARKOA

AURKEZPENA:

2017 urtean zehar izan ditugun eztabaidetan jasotako ideia azpimarragarrienak laburbiltzen ditugu dokumentu honetan. Gai honen inguruan sakontzen jarraitzeko garrantzitsuak diren aspektuak jasota, ondorioak atera eta aurrerapausoak emateko aukera ematea espero dugu:

2017an zehar bi eztabaida izan ditugu:

- 1) Martxoaren 24ean.
- 2) Azaroaren 7an.

Eztabaida egiteko, haurdunaldi subrogatuaren inguruan hainbat iritzi jasotzen dituzten irakurketak banatu ziren (txostenak, dokumentuak, artikuluak, etab.). Aipatu behar da irakurketa hauetako batzuk gaia ikuspuntu feminista batetik lantzen dutela eta beste batzuk ez, jendartearen dauden iritzi kontrajarriak islatzen dituztenak.

HAURDUNALDI SUBROGATUA

A continuación se exponen algunos de los términos y cuestiones en torno a los cuales ha girado el debate y la reflexión:

1.- ETIKA IDEOLOGIKO AUZIA. Desira-eskubide binomioa.

- Jendarte ez parekide batean, bakoitzak nahi duena egiteak batzuentzat onura ekartzen ditu.
- Alokairuko sabelak/haurdunaldi subrogatua – prostituzioaren antzekoa. Puntu komunen inguruko eztabaida.
- Emakume gehienak pobreak dira – indarkeria da: haurdunaldi subrogatuak izateko prest dauden emakumeen perfil sozial eta ekonomikoa zalantzan jartzen da.
- Ugaltzeko era legitimoa maitasun aitortua da eta ez kontu korrontea, merkantilizazioa.
- Organoak saltzarekin antzekotasunak, gaur egun biak legez kanpo daude, alokairuko sabelak ondo ikusten dira.

Desira-eskubidea.

- Amatasuna/aitatasuna eskubidea edo desira den eztabaidatzen da. Jendarteak biztanle guztien desirak betetzeko ardura ote duen (edozein motatako izan arren).
- Desira guztiak eskubide bilakatu daitezke?
- Ondorioen aurrean, gizon pribilegiatuen desiren lehentasuna: emakumeen gorputzen esplotazio berria (zapalduen ustiapena pribilegiatuen aurrean).
- Eztabaida honen harira ideia ezberdinak ateratzen dira:
 - Aita eta ama izatea ez da eskubide bat.
 - Identitate genetikoaren nahia.
 - Eskubide eta desiren arteko ezberdintasuna.

Amatasuna desira moduan ikusi arren, eskubidetzat ere hartu daiteke. Eskubide moduan hartzen badugu, estatuak hori bermatu ahal izateko bitartekoak eskuragarri jarri behar ditu.

2. AMATASUNA – GENERO IDEOLOGIA – PATRIARKATUA

Amatasunaren ikusmoldea.

Haurdunaldi subrogatuaren inguruko eztabaidak amatasunaren inguruko ikusmoldea du abiapuntutzat:

Hainbat kontu atera dira eztabaidan zehar:

- Subrogazioaren aurkako jarrera duten feministen amatasunaren idealizazioa.

Haurdunaldi subrogatuek ugaltzeko modu biologikoa aldatzen dute, lesbianon amatasuna bezalaxe.

Familia eredu patriarkalak aldatzen ditu: epe ertainean aniztasuna ekartzen du eta ereduak aldatzen ditu; epe luzean ez, “normalak” izan nahi duten bikoteentzat eginda dagoelako.

Zein familia eredu planteatzen da?

Familiak aspaldi utzi zion zerbait egonkorra eta tradizionala izateari.

Subrogazioaren ondorioz sortzen diren familiak ikusgarri egiteko beharra dute eta estereotipotatik aldentzeko. Ez da soilik gizon gay-ei lotutako zerbait.

Hainbat ama eta aita izateko aukera legeetan barneratzea.

Nola lotu ideia hauek jendarte ezberdin eta alternatiboa nahi izatearekin.

3.- ERREALITATEA

Haurdunaldi subrogatuak ez dira ideia abstraktuak, errealitatea baizik. Beraz, zer egin behar dugu? Legeak egin behar al dira?

Errealitatea izanik, merkatu beltza edo esplotazioa ekiditeko beharra dira legeak egitearen aldeko argudioak. Legeak egitearen bitartez esplotazioa eta gehiegikeriak saihestu daitezke.

Zapalkuntza egoeretan egiten ari al da?

Amatasun subrogatua nahi dugu? Zer egin behar dugu horrekin?

Errealitatea ezagutzeko garrantzia eta beharra. Zeintzuk hartzen dute parte, zein dira beraien ezaugarriak, zer esaten dute euren uteroak alokatzen dituzten emakumeak, zein egoeratan egiten dute, datuak behar ditugu.

Gay kolektiboarekiko ari gara ikuspuntua jartzen baina soilik %20a dira.

4.- ADOPZIOA– UGALKETARAKO TEKNIKAK

Antzekotasunak eta ezberdintasunak; hainbat puntu sortzen dira eztabaidan gai honen inguruan:

- Adopzioak elkartasunarekin lotura al du eta mundu hobeago baten aldeko apustuarekin?
- Subrogazioa ez da laguntza bidezko ugalketarako teknika bat, hirugarren pertsona bat sartzen da.

Adopzioa, egoera, oztopoak, pertsona batzuentzat ez da alternatiba bat. Aurka dauden mugimenduetan adoptatzeko zain dauden umeak daudela argudiatzen dute, zertarako “nahi” ditugu ume “berriak” gure nahietara eginda daudenak?. Komertzializazioa eta onurak.

5.- LEGEZTATZEA

Legeak egin edo ez. Zergatik egin legeak. Zein kriterio erabili. Errealitatearen inguruko informazioa eta beste lege batzuk ezagutzeko beharra.

Haurdunaldi subrogatuak erregulatzen dituzten sistema ezberdinen analisia egiten da puntu honetan: nun jartzen dute ikuspuntua?

Kontratua edo altruista.

Emakumeak babestu eta euren segurtasuna bermatzeko legeak egitea.

Krudela da subrogazioan dauden emakume guzti horiek erantzunik gabe uztea.

Prostituzioarekin erabiltzen diren argudioak antzekoak dira.

Egoera irregularretan dauden emakumeak dituzte ama subrogatu izateko aukera gehienak, emakume etorkinak.

Emakume horiei eskatu beharrekoak: ume bat izatea, egoera ekonomiko egonkorra.

Atzera botatzen bada, zer egin behar da?

Zein babestu behar da? Haurdun dagoena, umea eta umea desiratzen dutenak, hurrenez hurren.

Desiratzen dutenek ezin dute atzera egin, ume biologikoa izango balitz bezala, adopzioarako aukerarik ez.

Abortatzea nork erabakitzen du.

Haurdun daudenen babesaren eta eskubideen aitortza.

Debalde, organoen donazioa bezala? Hau ez da donazio bat.

Bitartekaritzako agentziak legezkotu. Ezabatu. Sistema publikoa. Haurdun egoteko prest dauden emakumeen kooperatibak. Sistema publikoak bere gain hartzea, sare publikoaren baitan?

Espezietan ordaintzearen arazoa, trapitxeoa.

6.- IZENA – IZENDATZEA.

Garrantzia handikoa. Alokairuko amak, amatasun subrogatua, alokairuzko uteroak, ordezkapeneko haurdunaldia...

Deitura ez da "inuzentea", bata edo bestea erabiltzeak zama ideologikoa dakar eta planteamendua argi uzten du (alde edo aurkako jarrera).

EZTABAIDA FEMINISTAK

Esentzian biktimak: emakumeen gorputzak ukitu ezin diren katedralak.

Gorputz eta sexualitateekin arazoak (sexualitatea sakratua da). Emakumeen gorputzak erabili eta komertzial bilakatu.

Gorputza saltzea/baimen prekarioa, badakite zer ari diren egiten eta zergatik. Gaur egun guztiok prekaritatearen inguruko istorioak ditugu buruan. Ez dira biktima gaixoak, bizirauten ari diren pertsonak baizik. Erabakitzeko duten espazio mugatua.

Lan sexualetan emakumeak gauza bihurtzeak funtzionatzen du, beste lanetarako bizirauteko ideiak balio du.

Erabakitzeko eskubidea haurdunaldi subrogatuetan eztabaida gaia da. Aurkako iritzietan emakumeak biktimak direla argudiatzen da. Hori ez al da jarrera paternalista? Zergatik ez da hitz egiten etxeko lanak egiten dituzten emakumeek jasaten duten esplotazioaren inguruan? Duintasuna ez da galtzen garbitzen eta zaintzen eta bai lan sexualetan edo haurdunalditan?

Horren aurka ideia bat ateratzen da, zergatik ezin dugu erabaki nahiz eta egoera txarrean egon? Emakumeekiko paternalismoa.

Indarkeria mota bat gehiago bezala bizi da. Biktimak gara esentzian: dena da emakumeon eta gure gorputzen aurkako eraso.

Hauek izan dira eztabaidetan ateratako ideiak. Topaguneak sortzen jarraitzeko beharra dagoela uste dugu, gai honen inguruko eztabaida eta hausnarketa kolektiboari ekin behar diogu.